Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1896

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 10ekoa, Energia eta Meategien zuzendariarena, «Altsasu TA-Gamarra I eta II TA 30 kV-ko airetiko linea elektrikoarekin lotzeko den Elgea TA - Altsasu I-II TA 30 kV-ko airetiko linea elektrikoa» izeneko instalazioa egiteko baimena eman, instalazioa herri-onurakotzat deklaratu eta burutzapen-proiektua onartzen duena.

Erref.: 17655-PRD-mmb.

Esp.: 01-AT-H-2009-00009.

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

AURREKARIAK

Bat.– Iberdrola Distribución Eléctrica SAUren izenean eta ordez –aurrerantzean Iberdrola–, Juan Carlos Barredo Vesgak «Altsasu TA-Gamarra I eta II TA 30 kV-ko airetiko linea elektrikoarekin lotzeko den Elgea TA - Altsasu I-II TA 30 kV-ko airetiko linea elektrikoa» izeneko instalazioa Agurain, Barrundia eta Donemiliagako uralerrietan egiteko Administrazioaren baimena eta instalazioa herri-onurako deklaratzeko eta burutzapen-proiektua onartzeko eskaria egin zuen 2009ko otsailaren 18an.

Bi.– Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan (2002-12-23ko EHAA) xedatutakoa betetzeko, eta Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 53. artikuluan (1997-11-28ko BOE) ezarritakoaren arabera, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2 eta 52. artikuluetan (1954-12-17ko BOE) eta 1957ko apirilaren 26ko haren Araudiaren 56. artikuluan (1957-06-20ko BOE) xedatutakoarekin bat etorriz, proiektua bera eta aipatu enpresak desjabetu beharrekotzat jo dituen ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri dira hogei egunez. (282/2002 Dekretuaren bidez honako instalazio hauek eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio baimenerako prozedurak arautzen dira: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere).

Hiru.– Hori horrela, eta jendaurreko informazioaren izapidearen barruan, ondoko gune eta egunetan argitaratu zen iragarkia: eragindako udaletxeetako iragarki-oholetan, Arabako Lurralde Historikoko Al-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

1896

RESOLUCIÓN de 10 de febrero de 2010, del Director de Energía y Minas, por la que se autoriza la instalación denominada «línea eléctrica aérea a 30 kV. St.Elgea-St.Alsasua I-II de enlace con la línea eléctrica aérea a 30 kV St Alsasua-St Gamarra I y II», se aprueba el proyecto de ejecución y se declara la utilidad pública de la misma.

Ref.:17655-PRD-mmb

Exp: 01-AT-H-2009-00009

En la resolución del expediente es preciso tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Don Juan Carlos Barredo Vesga en nombre y representación de Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., en adelante Iberdrola, solicitó con fecha 18 de Febrero de 2009, la autorización administrativa, declaración en concreto de la utilidad pública y la aprobación del proyecto de ejecución de «Línea eléctrica aérea a 30 kV. ST.Elgea-ST.Alsasua I-II de enlace con la línea eléctrica aérea a 30 kV ST Alsasua-ST Gamarra I y II», en los términos municipales de Salvatierra-Agurain, Barrundia y San Millán.

Dos.– En cumplimiento de lo previsto en el Decreto 282/2002 de 3 de Diciembre (BOPV de 23-12-2002) por el que se regulan los procedimientos de autorización administrativa para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, así como de las acometidas, líneas directas, e instalaciones de conexión de consumidores y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 53 de la Ley 54/1997 de 27 de Noviembre del Sector Eléctrico (BOE 28-11-1997), en los artículos 17-2 y 52 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de Diciembre de 1954 (BOE 17-12-1954), y 56 de su Reglamento de 26 de Abril de 1957 (BOE 20-06-1957), dicho proyecto ha sido sometido a información pública, durante el plazo de veinte días, junto con la relación concreta e individualizada de los bienes y derechos que dicha empresa consideraba de necesaria expropiación.

Tres.– A tales efectos, dentro del trámite de información pública se publicó el anuncio en los Tablones de los Ayuntamientos correspondientes, en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, de fecha 27

dizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2009ko martxoaren 26an eta El Correo egunkarian 2009ko martxoaren 5ean.

Lau.– Jendaurrean erakustea den izapideaz batera sail honek txostena eskatu zien ondokoei: Agurain, Barrundia eta Donemiliagako udalei, Arabako Foru Aldundiko Baso Zerbitzuari eta Errepide Zerbitzuari eta Confederación Hidrográfica del Ebro-ri.

Bost.– Jendaurrean erakusteko izapidearen ondorioz, ondoko erakunde eta eragindako partikularrek alegazioak aurkeztu dituzte:

Donemiliagako Udalak ondokoa adierazi du: hirigintzaren ikuspuntutik eta indarrean dagoen araudiaren arabera instalazioa egiteko modukoa bada ere, hau ere kontuan hartzekoa da:

– Proposatutako azpiegitura sortzeak esan nahi du lurzoru urbanizaezina den eremu txiki batean elkartzen diren hiru linea elektriko egongo direla.

Beraz, beharrezkoa da alegazioa aurkeztea non esango den linea horiek trazatu berberetik joan behar dutela nekazaritzako lurzoruan eta naturan egin dezakeen kaltea ahalik eta txikiena izan dadin, esaterako hornidura-ahalmen handiagoko linea jarriz eta orain dagoen ahalmen txikiagokoa kenduz.

– Teknikaren ikuspuntutik hori ezinezkoa baldin bada, beharrezkoa iruditzen zaigu gutxienez ingurumen ikuspuntutik hartu beharreko neurrien gaineko txosten bat eskatzea Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailari.

– Herri-onurakoa dela deklaratzea bidezkoa gertatzen bada, Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurraldearen Oreka Sailak izapidetu beharko du.

Barrundiako Udalak aldeko txostena egin du hirigintzaren ikuspuntuari dagokionez, eta ondoko baldintzak jarri ditu:

– Obra egiteko baimena eskatzeko unean obra zibilaren eta instalazioen aurrekontua aurkeztu beharko da.

– Herri-onurakoa dela deklaratzea bidezkoa gertatzen bada, Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurraldearen Oreka Sailak izapidetu beharko du.

– Azpiegitura egiteak herri-basoetan eragina duenez, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailari ingurumen ikuspuntutik hartu beharreko neurriei buruzko txostena eskatu beharko zaio.

Ondoren, Barrundiako Udalak alegazio gehiago eta horiei dagokienez Arabako Foru Aldundiko Ingu-

de Marzo de 2009, en el Boletín Oficial del País Vasco, de fecha 26 de Marzo de 2009 y en el periódico «El Correo», de 5 de Marzo de 2009.

Cuatro.– Con carácter simultáneo al trámite de información pública este Departamento ha solicitado los informes correspondientes a los Ayuntamientos de Salvatierra-Agurain, Barrundia y San Millán, al Servicio de Montes y al Servicio de Carreteras de la Diputación Foral de Álava y a la Confederación Hidrográfica del Ebro.

Cinco.– Como resultado del trámite de información pública se presentan informes por los siguientes organismos, entidades y particulares afectados:

El Ayuntamiento de San Millán manifiesta que «Si bien la instalación puede ser viable desde el punto de vista urbanístico, y con arreglo a la Normativa vigente, se considera lo siguiente:

– La ejecución de la infraestructura propuesta implicará la existencia de tres líneas eléctricas convergentes que discurren por un ámbito muy reducido del Suelo No Urbanizable.

Por lo tanto se considera necesario formular una alegación en la que se proponga que todas ellas discurran por el mismo trazado con el fin de reducir todo lo posible la afección al suelo agrícola y al medio natural, por ejemplo disponiendo una línea de mayor capacidad de suministro y eliminando la ya existente de menor capacidad.

– Si ello no fuera posible desde el punto de vista técnico se considera necesario al menos recabar del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava un informe relativo a las medidas a adoptar desde el punto de vista medioambiental.

– En el caso de ser procedente la declaración de utilidad pública deberá ser tramitada ante el Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava.»

El Ayuntamiento de Barrundia informa favorablemente desde el punto de vista urbanístico, con las condiciones siguientes:

– Deberá ser aportado el presupuesto de la obra civil e instalaciones en el momento de solicitar la licencia de obra.

– En el caso de ser procedente la declaración de utilidad pública deberá ser tramitada ante el Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava.

– Por afectar la ejecución de la infraestructura a montes públicos se deberá solicitar informe relativo a las medidas a adoptar desde el punto de vista medioambiental al Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava.

Con posterioridad, el propio Ayuntamiento de Barrundia formula nuevas alegaciones, a las que ad-

rumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak 2009ko urriaren 29an egindako txostena aurkeztu zituen. Alegazio horietan Barrundiako Udalak hauxe eskatzen du: linea elektriko bakarra erabiltzeko aukerari buruzko azterketa teknikoa egin dezala Iberdrolak, kontuan hartuz gaur egunean ditugun lineak trinkotzeko posibilitate teknikoak eta linea berria egin ondoren gaur egungo linea berritzeko edota desegiteko dauden alternatibak, betiere linea elektriko berriak eraikitzeak ingurunean eta paisaian izan dezaketen eragina ahal den neurrian gutxitzeko.

Aurelio Orbiso Larreak, Zuhatzu Donemiliagako Udalbatzeko lehendakariak, honakoa alegatzen du:

– Legez eskatzerik ez dagoen arren, beharrezkotzat jotzen dute ingurumen-inpaktuari buruzko azterlan bat egitea, proposatutako trazatuaren beste alternatibaren bat ote dagoen ikusteko.

– Ez dutela ulertzen zergatik jarri behar zaion linea elektriko esklusiboa WEC galdategiari.

– Egin ahal diren trazadurak egiteko orduan, beharrezkotzat jotzen dute eragindakoen partaidetza lurrei ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

Primitivo Díaz de Arcaya Ruiz de Luzuriagak dio ureztatze-sistema bat jartzekoa dela bere finkan –proiektuaren arabera, 38. finka– eta eskatzen du finka horretan jartzekoa den zutoina mugaraino metro batzuk mugitzea.

Era berean, txostena egin eta baldintzak jarri dituzte Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak, «Ura» Uraren Euskal Agentziak eta Telefonikak.

Sei.– Iberdrolari bidali zaizkio alegazioak, eta enpresa horrek honela erantzun du:

– Donemiliagako Udalari dagokionez, adierazi du inguru horretan energia elektrikoz hornitzeko dituzten beharrak kontuan hartuta teknikoki ez dela posible lineak trinkotzea, ez eskatzen duten potentziaren aldetik ez eta haien elementu hartzaileen berariazko ezaugarriak kontuan hartuta ere, eta kalitate-irizpideei eta 30 KV-ko sare banatzaile guztia hornitzen jarraitzeari begira, beharrezkotzat jo da WEC galdategiak modu jarraian energia elektrikoz hornitzeko bi zirkuitu izan ditzan. Iberdrola Distribución Eléctricak Agurain inguruan potentzia erabilgarria gehitzeko duen beharrak justifikatu egiten du WEC galdategia elikatzeko zirkuituez gain beste bi zirkuitu eraikitzea. Dauden zirkuituak zerbitzurik gabe ezin direnez utzi eta euskarri bakarraren gainean sei zirkuitu eraikitzea teknikoki ezinezkoa denez, uste da aukera egokiena proiektatutako trazadura dela; Trazadura horrek proposatzen du herri basoei eragiten dien lerroan dagoen linearen korridorea erabiliz lau zirkuituko linea berri bat eraikitzea eta gainerako trazaduran zirkuitu bi-

junta el Informe emitido el 29 de Octubre de 2009 por el Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad de la Diputación Foral de Álava. En sus alegaciones el Ayuntamiento de Barrundia solicita que Iberdrola realice un estudio técnico sobre la posibilidad de utilizar un único tendido, considerando para ello las posibilidades técnicas de compactación de líneas existentes en la actualidad y las alternativas de reforma de la línea actual o desmontaje de la misma una vez construida la nueva línea a fin de minimizar al máximo posible las afecciones ambientales y paisajísticas a la que pueden dar lugar las construcciones de los tendidos eléctricos.

D. Aurelio Orbiso Larrea, en calidad del Presidente del Concejo de Zuazo San Millán alega:

– Que aun no siendo legalmente exigible, estiman necesario se realice un Estudio de Impacto Ambiental y ver si es posible otra alternativa a los trazados propuestos.

– Que no entienden la necesidad del trazado de una línea exclusiva dirigida a la empresa fundiciones WEC.

– A la hora de elaborar los posibles trazados consideran necesaria la participación de los afectados para su posible menor afección a los terrenos.

D. Primitivo Díaz de Arcaya Ruiz de Luzuriaga, solicita que el poste proyectado en su finca se desplace unos metros hasta el linde dado que está previsto realizar en esta finca (identificada con el n.º 38 según proyecto) un sistema de regadío.

Asimismo emiten Informe, con su condicionado, el Servicio de Carreteras de la Diputación Foral de Álava, la Agencia Vasca del Agua «Ura» y Telefónica.

Seis.– Que habiendo dado traslado de las alegaciones a Iberdrola, ésta procede a contestar en los siguientes terminos:

– Con relación al Ayuntamiento de San Millán, manifiesta que técnicamente no es posible la compactación de las líneas dadas las necesidades de suministro de energía eléctrica de la zona, tanto desde el punto de vista de la potencia a demandar como las características específicas de sus elementos receptores, y atendiendo a criterios de calidad y continuidad del suministro del conjunto de la red de distribución de 30 KV se ha considerado necesaria que la empresa Fundiciones WEC disponga de dos circuitos que le suministren energía eléctrica de forma continuada. La necesidad por parte de Iberdrola Distribución Eléctrica de incrementar la potencia disponible en la zona de Salvatierra, justifica la construcción de otros dos circuitos además de los de alimentación a Fundiciones WEC. Dada la imposibilidad de prescindir de servicio en los dos circuitos existentes, así como de la imposibilidad técnica de la construcción de seis circuitos sobre apoyos únicos, se ha considerado como alternativa más idónea el trazado proyectado,

koitzak. Nolanahi ere, ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egiteko moduan, teknika eta ekonomia aldetik modu egokienean eta eskualdeko interesentzako onena eta lur-jabeentzako erasan txikiena izateko moduan egin da proiektua.

– Bestalde, aipatu proiektua burutzean legezko betekizunak betezen dituela dio, zehazki energia elektrikoaren garraioa, banaketa, merkaturatzea, horniketa eta instalazioetarako baimen-prozedura arautzen duen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren bidez ezarritakoak. Iberdrolak adierazi du Donemiliago Udalari eskatuko diola obra-baimena dagokion garaian eta Udalari dagokiola, behar izanez gero, Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari herri-onurako deklarazioaren eskaria egitea, baimenari dagozkion administrazio-izapideak egiterako orduan. Era berean eskatuko ditu proiektua burutzeko beharrezkoak diren baimenak. Alde horretatik, herri-onurako basoak erabiltzeko baimena eskatuko zaio Arabako Foru Aldundiari eta horretarako eskatzen diren baldintzak beteko ditu, ingurumenari dagozkionak barne.

– Barrundiako Udalari dagokionez, adierazi du dagokion garaian eskatuko diola obra-baimena udal horri, eta kasua balitz udal horri dagokiola baimenaren administrazio-izapideak egiterako orduan herri-onurako deklarazioaren eskaria egitea, nahi izanez gero, Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari. Era berean eskatuko ditu proiektua burutzeko beharrezkoak diren baimenak. Alde horretatik, herri-onurako basoak erabiltzeko baimena eskatuko zaio Arabako Foru Aldundiari eta horretarako eskatzen diren baldintzak beteko ditu, ingurumenari dagozkionak barne. Adierazi du, halaber, banaketako 30 KV-ko linea bat dela, Elektrizitate Sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 35. eta 38. artikuluak araututakoa, eta ez garraio sarekoa, eta proiektatutako linea lur landatarretan eta herri-onurako basoetan zehar egongo dela eta ingurumen aldetik ez eremu eragingarriei ez eta Natura 2000 Sareko BGLei ez diela eragingo. Lineak trinkotzeko eskariari dagokionez, Donemiliagako Udalari erantzundakoa esaten da berriro ere.

que contempla la construcción de una nueva línea de cuatro circuitos utilizando el corredor de la línea existente en el trazo que afecta al Monte de Utilidad Pública y de dobles circuitos en el resto del trazado. En todo caso, el proyecto ha sido elaborado atendiendo a la menor afección ambiental posible y de forma que resulte el más idóneo desde el punto de vista técnico y económico y el más adecuado para el conjunto de los intereses de la comarca que nos ocupa, con la menor afección posible para los propietarios de los terrenos.

– Por otra parte, señala que con la ejecución del proyecto de referencia, está dando cumplimiento a las obligaciones legalmente establecidas, en concreto a lo dispuesto en el Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, por el que se regulan las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y procedimientos de autorización de instalaciones de energía eléctrica. Iberdrola manifiesta que procederá en su momento a solicitar la correspondiente licencia de obras ante el Ayuntamiento de San Millán correspondiendo en su caso al Ayuntamiento, dentro de la propia tramitación administrativa de dicha licencia, la solicitud, si lo estimara procedente, de la utilidad pública al Departamento de Administración Local y Equilibro Territorial de la Diputación Foral de Álava. Asimismo solicitará los demás permisos y autorizaciones que fueran precisas para la ejecución del proyecto de referencia En tal sentido se solicitará a la Diputación Foral de Álava la autorización para la ocupación de los Montes calificados de Utilidad Pública, y se estará al condicionado que se establezca, incluidos sus aspectos medioambientales.

– Con relación al Ayuntamiento de Barrundia, manifiesta que procederá en su momento a solicitar la correspondiente licencia de obras ante el Ayuntamiento de Barrundia correspondiendo en su caso al Ayuntamiento, dentro de la propia tramitación administrativa de dicha licencia, la solicitud, si lo estimara procedente, de la utilidad pública al Departamento de Administración Local y Equilibro Territorial de la Diputación Foral de Álava. Asimismo solicitará los demás permisos y autorizaciones que fueran precisas para la ejecución del proyecto de referencia En tal sentido se solicitará a la Diputación Foral de Álava la autorización para la ocupación de los Montes calificados de Utilidad Pública, y se estará al condicionado que se establezca, incluidos sus aspectos medioambientales. Que asimismo, se trata de una línea de 30 KV, de distribución, regulada por los artículos 35 al 38 de la Ley 54/1997 de 27 de Noviembre, del Sector Eléctrico, y no de la red de transporte y que la línea proyectada discurre por terrenos rústicos y Montes de Utilidad Pública, no afectando a Áreas medioambientalmente sensibles ni LICs de la Red Natura 2000. Con relación a la solicitud de compactación de líneas se reitera en lo señalado en su contestación al Ayuntamiento de San Millán.

– Zuatzu Donemiliagako Udalbatzari dagokionez, adierazten du alegaziogileek egoki esaten duten moduan, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana ezin dela legez eskatu. Nolanahi ere, ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egiteko moduan, teknika eta ekonomia aldetik modu egokienean eta eskualdeko interesentzako onena eta lur-jabeentzako erasan txikiena izateko moduan egin da proiektua. Are gehiago, airetiko azpiegitura denez partikularren laborantzen gaineko eragina oso txikia da eta herri-onurako basoei dagokienez, baso horiek erabiltzeko baimena eskatuko zaio Arabako Foru Aldundiari eta horretarako eskatzen diren baldintzak beteko ditu, ingurumenari dagozkionak barne. Lineak trinkotzeko eskariari dagokionez, arestian erantzundakoa esaten da berriro ere.

– Primitivo Díaz de Arcaya Ruiz de Luzuriagari dagokionez, dio haren proposamenak proiektuko 27. euskarria 83 metro mugitzea eta 275 metro luzerako baoa sortzea ekarriko lituzkela. Egiteko modua egon denean euskarriak sailen mugetan instalatzeko proiektua egin bada ere, eskari hori ezin da onartu teknikoki ezinezkoa delako, linea horren proiektuko eroaleeta euskarri-motak bete behar dituzten baldintzak kontuan hartuta.

– Bestalde, Iberdrolak bere gain hartzen ditu Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak, «Ura» Uraren Euskal Agentziak eta Telefonikak euren txostenetan ezarritako baldintzak.

Zazpi.– Aurkeztutako alegazioak eta erakunde interesatuak haiei emandako banan-banako erantzunak ere jasota daude behar den bezala administrazio-espedientean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Energia eta Meategien Zuzendaritza da espediente hau ebazteko organo eskuduna, betiere Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bi.– Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 21. eta 28. artikuluetan ezartzen denez, energia elektrikoa sortzeko instalazioak eraiki, ustiatu, funtsean aldatu, eskualdatu eta ixteko aldez aurreko administrazio-baimena beharko da.

Hiru.– Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 52. artikuluak ondoko instalazioak herri-onurako direla deklarazten du: ezar

– Con relación al Concejo de Zuazo-San Millán, manifiesta que como de forma adecuada señalan los alegantes, el Estudio de Impacto Ambiental no es legalmente exigible. No obstante lo anterior, el proyecto ha sido elaborado atendiendo a la menor afección ambiental posible y de forma que resulte el más idóneo desde el punto de vista técnico y económico y el más adecuado para el conjunto de los intereses de la comarca, con la menor afección posible para los propietarios de los terrenos. A mayor abundamiento, al tratarse de un infraestructura aérea la afección sobre los cultivos particulares es mínima y en la parte que se afecta a los Montes calificados de Utilidad Pública, se solicitará la correspondiente autorización de la Diputación Foral de Álava, y se estará al condicionado que se establezca, incluidos sus aspectos medioambientales. Con relación a la solicitud de compactación de líneas se reitera en lo señalado anteriormente.

– Con relación a D.Primitivo Díaz de Arcaya Ruiz de Luzuriaga, manifiesta que dicha propuesta supondría un desplazamiento del apoyo n.º 27 (según proyecto) en una distancia de 83 metros que generaría un vano de 275 metros de longitud. Aun cuando siempre que ha sido posible se ha proyectado la instalación de los apoyos en los límites de las parcelas, dicha solicitud no puede ser admitida, porque es inviable técnicamente, dados los condicionantes existentes por el tipo de conductor y apoyos con los que esta línea ha sido proyectada.

– Por otra parte, Iberdrola asume los condicionados establecidos en sus Informes, por el Servicio de Carreteras de la Diputación Foral de Álava, la Agencia Vasca del Agua «Ura», y Telefónica

Siete.– Todas las alegaciones presentadas, así como la preceptiva contestación individualizada realizada a las mismas por la entidad interesada constan formalmente en el correspondiente expediente administrativo.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Energía y Minas es el órgano competente para la resolución de este expediente, de conformidad con lo establecido en el Decreto 514/2009 de 22 de Septiembre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Dos.– La Ley 54/1997 de 27 de Noviembre, del Sector Eléctrico, determina en sus artículos 21 y 28 que la construcción, explotación, modificación sustancial, transmisión y cierre de las instalaciones de producción de energía eléctrica estarán sometidas al régimen de autorización administrativa previa.

Tres.– El artículo 52 de la Ley 54/1997 de 27 de Noviembre del Sector Eléctrico declara la utilidad pública de las instalaciones de generación, transporte

daitezen eta bide-zorra ezarri eta baliatu ahal dadin, beharrezko diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako, energia elektrikoa sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektrikoak. Bada, lege horren 54. artikuluan ezartzen denez, herri-onurako deklaratzeak berekin dakar: eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra eta ondorioz okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeren 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Lau.– Administrazio-prozedurako arau erregulatzaileetan eta aipatu legeetan aurreikusitako prozedura-izapide eta -baldintzak hartu dira kontuan, eta bete ere egin dira espedienteari izapideak egiterakoan.

Bost.– Proiektuak betetzen ditu aplikagarri zaizkion segurtasun-araudietan eskatzen diren betekizun teknikoak.

Sei.– Proiektu honi dagokionez, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk betetzen ditu legezko betekizunak, zehazki energia elektrikoaren garraioa, banaketa, merkaturatzea, horniketa eta instalazioetarako baimen-prozedura arautzen duen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren bidez ezarritakoak.

Zazpi.– Inguru horretan energia elektrikoz hornitzeko dituzten beharrak kontuan hartuta teknikoki ez dela posible lineak trinkotzea, ez eskatzen duten potentziaren aldetik ez eta haien elementu hartzaileen berariazko ezaugarriak kontuan hartuta ere, eta kalitate-irizpideei eta 30 KV-ko sare banatzaile guztia hornitzen jarraitzeari begira.

Aipatutako lege-manuak, eta, oro har zein berariaz, gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honakoa

EBATZI DUT:

1.– Iberdrola Distribución Eléctrica SAUri «Altsasu TA-Gamarra I eta II TA 30 kV-ko airetiko linea elektrikoarekin lotzeko den Elgea TA-Altsasu I-II TA 30 kV-ko airetiko linea elektrikoa» izeneko proiektuari dagozkion instalazioak egiteko baimena ematea eta burutzapen-proiektua onartzea. Hona hemen proiektuaren ezaugarri nagusiak:

Kokalekua: Agurain, Barrundia eta Donemiliagako udalerriak.

Aurrekontua: 612.221,42 euro.

Xedea: energia elektrikoaren eskaera gero eta handiagoari behar bezalako zerbitzua emanez erantzutea.

Ezaugarriak:

Linea elektrikoa: Lurpeko 1. tartea. Zirkuitu laukoitza.

y distribución de energía eléctrica, a los efectos de expropiación forzosa de los bienes y derechos necesarios para su establecimiento y de la imposición y ejercicio de servidumbre de paso y el artículo 54 del mismo texto legal establece que la declaración de utilidad pública llevará implícita en todo caso la necesidad de ocupación de los bienes y o de adquisición de los derechos afectados e implicará la urgente ocupación a los efectos del artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa.

Cuatro.– En la tramitación del expediente se han tenido en cuenta y cumplido los requisitos y trámites procedimentales previstos tanto en las normas reguladoras del procedimiento administrativo, como en la legislación citada.

Cinco.– Que el proyecto cumple con las exigencias técnicas contenidas en las Normativas de seguridad que le son de aplicación.

Seis.– Que Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., con el proyecto de referencia, está dando cumplimiento a las obligaciones legalmente establecidas, en concreto a lo dispuesto en el Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, por el que se regulan las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y procedimientos de autorización de instalaciones de energía eléctrica.

Siete.– Que técnicamente no es posible la compactación de las líneas dadas las necesidades de suministro de energía eléctrica de la zona, tanto desde el punto de vista de la potencia a demandar como las características específicas de sus elementos receptores, y atendiendo a criterios de calidad y continuidad del suministro del conjunto de la red de distribución de 30 KV

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

1.– Autorizar a Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. las instalaciones correspondientes al proyecto denominado «Línea eléctrica aérea a 30 kV. ST.Elgea-ST.Alsasua I-II de enlace con la línea eléctrica aérea a 30 kV ST Alsasua-ST Gamarra I y II», y aprobar el proyecto de ejecución, cuyas principales características son las que se indican a continuación:

Emplazamiento: en el término municipal de Salvatierra-Agurain, Barrundia y San Millán.

Presupuesto: 612.221,42 euros.

Finalidad: atender al aumento de la demanda de energía eléctrica con la debida calidad del servicio.

Características:

Línea eléctrica: tramo n.º 1 subterráneo. Cuádruple circuito.

– Zerbitzu-tentsioa: 30 kV.

– Eroaleak: 12, 630 mm²ko aluminiozkoak, 18/30 kV-ko HEPRZ1 isolamenduaz.

– Luzera: 95 m.

– Hasiera: Zuazolan dagoen Elgea azpiestazioko 30kV-ko gelaxkak.

– Amaiera: proiektatutako lineako 1. euskarria.

Linea elektrikoa: airetiko 2. tartea. Zirkuitu laukoitza.

– Zerbitzu-tentsioa: 30 kV.

– Eroaleak: 12, 281 mm^2-ko aluminio-altzairuzkoak (LA-280).

– Euskarriak: metalezko sareta galbanizatua.

– Luzera: 2.949 m. (19 bao).

– Hasiera: proiektuko linearen 1. euskarria, Elgeako azpiestazioaren ondoan.

– Amaiera: proiektuko linearen 20. euskarria, A3022 errepidearen ondoan, 22.764 kilometro-puntua, Heredia eta Zuhatzu Donemiliaga bitartean.

Linea elektrikoa: airetiko 2. tartea. Zirkuitu bikoitza.

– Zerbitzu-tentsioa: 30 kV.

– Eroaleak: 6, 281 mm2-ko aluminio-altzairuzkoak (LA-280).

– <euskarriak: metalezko sareta galbanizatua.

– Luzera: 2.924 m. (19 bao).

– Hasiera: proiektatutako lineako 20. euskarria.

– Amaiera: Altsasu-Gamarra I eta II TA lineako 124. euskarria.

2.– Baimentzen diren instalazioak herri-onurakotzat deklaratzea, eta deklarazio horrek, azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 54. artikuluan xedatutakoaren indarrez, honako hauek dakartza: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu behar direla eta okupazioa, gainera, presaz egin behar dela. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen dituen ondorioak ekartzen ditu, 53. artikuluan zehaztutako erregistro ondorioekin.

Instalazio honek honako eraginak eta baldintzak izango ditu bere gainean:

A) Eraginak.

Energia elektrikoaren lurpeko bide-zorra.

Azpitik lurpeko trazatuak iragango diren finkei dagokienez, energia elektrikoa lurpetik pasatzeko zortasuna eskatzen da burutzapen-proiektuan adierazten den sakoneran kanalizazio-bideetatik kable-eroaleekin zorupea okupatzeko, eta horretarako kontrola eta

– Tensión de servicio: 30 kV.

– Conductores: 12 de aluminio de 630 mm2 con aislamiento HEPRZ1: 18/30 kV.

– Longitud: 95 m.

– Origen: celdas de 30 kV de la subestación de Elgea en Zuazola.

– Final: apoyo n.º 1 de la línea en proyecto.

Línea eléctrica: tramo n.º 2 aéreo. Cuádruple circuito.

– Tensión de servicio: 30 kV.

– Conductores: 12 de aluminio-acero de 281 mm^2 (LA-280).

– Apoyo: celosía metálica galvanizada.

– Longitud: 2.949 m (19 vanos).

– Origen: apoyo n.º 1 de la línea en proyecto junto a la Subestación de Elgea.

– Final: apoyo n.º 20 de línea en proyecto junto a la carretera A3022 punto kilométrico 22,764 entre Heredia y Zuazo de San Millan.

Línea eléctrica: tramo n.º 2 aéreo. Doble circuito.

– Tensión de servicio: 30 kV.

– Conductores: 6 de aluminio-acero de 281 mm2 (LA-280).

– Apoyo: celosía metálica galvanizada.

– Longitud: 2.924 m (19 vanos).

– Origen: apoyo n.º 20 de la línea en proyecto.

– Final: apoyo n.º 124 de la línea ST Alsasua-Gamarra I y II.

2.– Declarar, en concreto, la utilidad publica, de las instalaciones que se autorizan, llevando implícita esta declaración, a tenor de lo dispuesto en el artículo 54 de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, la necesidad de ocupación de los bienes o adquisición de los derechos afectados, e implicando la urgente ocupación de los mismos y determinando las consecuencias que para la Declaración de Urgente Ocupación dispone el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, de 16 de diciembre de 1954, con los efectos registrales del artículo 53 de la misma.

La presente instalación estará sujeta a las siguientes afecciones y condicionados:

A) Afecciones.

Servidumbre de paso subterránea de energía eléctrica

Sobre las fincas, por las que discurren los trazados subterráneos, la servidumbre de paso subterráneo de energía eléctrica comprende la ocupación del subsuelo por los cables conductores a través de los medios de canalización y profundidad que se reflejan en el

mantenua egiteko behar diren azalera-erregistroak egiteko; honako eragin hau izango du:

1.– Linea pasatzeko etengabeko zortasuna lur-zati batean, hain zuzen, azaleran zehazten dena eta finka bakoitzerako proiektuko lur-zatien planoetan eta honekin batera doan zerrendan jasotzen dena, lau metroko zabalerakoa –bi metro kanalizazio-ardatzaren albo bakoitzean–. Hortik pasako dira eroaleak eta instalazioa egiteko beharrezko diren gainerakoak.

Zortasun hori eratzearen ondorioz, aipatu lurmarraren azalerak ondoko jabari-mugak izango ditu:

– Debekatuta dago goldaketa, lur higidura eta antzekoak egitea 0,80 metroko sakoneran.

– Debekatuta dago zuhaitzak edo zuhaixkak edo sustrai sakoneko besterik landatzea.

– Debekatuta dago inolako obra edo eraikitzelanik egitea, aldi baterako bada ere, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUren berariazko baimena izan ezean eta instalazio elektrikoen arloan aginpidea duen erakundeak kasuan kasuan finkatzen dituen baldintzak bete gabe. Era berean, debekatuta dago linea elektrikoa eta berari erantsitako elementuak behar bezala funtzionatzeko kalte eta eraginik sor ditzakeen edozein ekintza burutzea.

2.– Instalazio elektrikoa egin, zaindu, konpondu edo berritzeko beharrezko diren langile eta elementuak mendeko finkara sartzeko sarrera librea. Lan hauek direla-eta kalterik sortuko balitz, kalte-ordaina eman beharko litzaioke titularrari.

Energia elektrikoaren airetiko bide-zorra.

Finken gainean, nondik igarotzen den airetiko linea, zortasunpeko onibarren gainean eraikitzeaz gain, aipatu zortasunak zutoinak, dorreak edo euskarri finkoak ezartzea barne hartzen du, kable energia-eroaleei eusteko. Halaber, pasatzeko edo sartzeko eskubidea eta instalazioak eraikitzeko, zaintzeko eta konpontzeko behar diren lurrak eta beharrezko gainerako ondasunak aldi baterako okupatzea barne hartzen du zortasun horrek.

B) Baldintzak.

1.– «Altsasu TA-Gamarra I eta II TA 30 kV-ko airetiko linea elektrikoarekin lotzeko den Elgea TA - Altsasu I-II TA 30 kV-ko airetiko linea elektrikoa» izeneko proiektuaren arabera egin beharko dira ebazpen honen bidez baimentzen diren instalazioak. Emilio Nanclares Ocio ingeniari industrialak izenpetu zuen proiektua (elkargokidetza-zenbakia: 1607) eta Arabako Ingeniari Industrialen Elkargo Ofizialak bisatu zuen 2009ko otsailaren 13an (090091 zenbakia).

proyecto de ejecución, así como los registros de superficie necesarios para el control y mantenimiento necesarios para tal fin, con el siguiente alcance:

1.– Servidumbre permanente de paso de la línea sobre una franja de terreno, que se concreta en la superficie y se refleja para cada finca en los planos parcelarios contenidos en el proyecto y en la relación de bienes y derechos, de 4 metros de anchura – 2 metros a cada lado del eje de la canalización – por donde discurrirán los conductores y demás accesorios necesarios para la instalación.

Como consecuencia de la constitución de la referida servidumbre, la superficie de la citada franja quedará sujeta a las siguientes limitaciones de dominio:

– Prohibición de realizar trabajos de arada, movimientos de tierra o similares a una profundidad de 0,80 m.

– Prohibición de plantar árboles o arbustos o cualquier elemento de raíces profundas.

– Prohibición de realizar cualquier tipo de construcción o de obra, aún cuando tenga carácter provisional o temporal, sin autorización expresa de Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U. y con las condiciones que en cada caso fije el Organismo competente en materia de instalaciones eléctricas, ni efectuar acto alguno que pueda dañar o perturbar el buen funcionamiento de la línea eléctrica y sus elementos anejos.

2.– Libre acceso al predio sirviente de personal y elementos necesarios para la ejecución, vigilancia, reparación o renovación de la instalación eléctrica, con indemnización, en su caso al titular, de los daños que con tales motivos ocasionen.

Servidumbre de paso área de energía eléctrica.

Sobre las fincas, por las que discurre la línea aérea, la servidumbre de paso aérea de energía eléctrica comprende, además del vuelo sobre el predio sirviente, el establecimiento de postes, torres o apoyos fijos para la sustentación de cables conductores de energía. Asimismo, dicha servidumbre comprenderá, igualmente el derecho de paso o acceso y la ocupación temporal necesaria de terrenos u otros bienes necesarios para la construcción, vigilancia y reparación de las correspondientes instalaciones.

B) Condicionados.

1.– Las instalaciones que se autorizan por la presente resolución habrán de realizarse de acuerdo con el proyecto denominado «Línea eléctrica aérea a 30 kV. ST.Elgea-ST.Alsasua I-II de enlace con la línea eléctrica aérea a 30 kV ST Alsasua-ST Gamarra I y II», firmado por el Ingeniero Industrial D. Emilio Nanclares Ocio colegiado n.º 1607 y visado con el n.º 090091 el 13 de febrero de 2009 por el Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Álava.

2.– Obrak gauzatzerakoan, dagokien erakundeek ezarritako baldintza teknikoak bete beharko ditu titularrak.

3.– Martxan jartzeko epea 36 hilabetekoa izango da, ebazpen honen jakinarazpena egiten den egunetik aurrera.

4.– Instalazioak martxan jarri ahal izateko, Arabako Lurralde Bulegoan aurkeztu beharko dira Obra Zuzendaritzari eta egindako probei buruzko ziurtagiriak.

5.– Obrak egiteko beharrezko diren neurrian, udalen edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentzien eta beharrezko diren beste batzuen aurka egin gabe eta horiekiko loturarik gabe ematen da baimen hau, eta ez du eskatzailea libre uzten baimen horiek lortzeko beharretik.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, hala agintzen baita 4/1999 Legean. Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 10a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

2.– El titular de las instalaciones tendrá en cuenta, para su ejecución, el cumplimiento de los condicionados técnicos establecidos por los Organismos afectados.

3.– El plazo de puesta en marcha será de 36 meses, a partir de la notificación de la presente Resolución.

4.– Para la puesta en marcha de las instalaciones deberá presentarse en la Delegación Territorial de Álava los correspondientes certificados de Dirección de Obra y de las pruebas efectuadas.

5.– La presente Autorización se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la necesidad de obtención de los mismos.

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2010.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.